

2023 sorkuntza

FLIPLUF

12 hilabetetik goiti dantza eta musika ikusgarria

ALABENA



Banaketa

Zuzendari artistikoa : Arantxa Lannes

Interpreteak : Maider Martineau - Arantxa Lannes

Xehetasunak

Ikuskizun anizduna (dantza, musika, arte plastikoak) bi interpreterentzat.

- 12 hilabete eta 6 urte artekoentzat - publiko zabala
- Iraupena : 30 min
- Harrera muga : 60 haur gehienik
- Behar teknikoak : 4m x 4m espazioa guttienez interpreteentzat. Barneko ikuskizuna.

Behar teknikoak : autonomoak, salbu : tapizak haurrak lurrean jartzeko. Gela biziki handia balitz, bi argi zangoekin, girotzeko eta espazio kontenitzeko.

Hizkuntza : euskarazko kantuak, lengoaia artistikoa, unibertsala

Prezioa : 700 € + bide gastuak (+ janaria beharrez).

Hiru saio gehienik egun batean edo serie baten posibilitatea. Kasu hortan prezioa degresiboa da.

Oharra

Ikuskizunaren giroa intimista da, nahiz eta umorea presente den, soinu mailan subtilitate ainitz bada, ondorioz entzumenerako gunegoki bat eskatzen du. Milesker zuen ulermenagatik.



FLIPLUF

Batzutan urak beldurtzen nau. Ustekabean, egoeraz aldatzen da. Eta barnean sartzeko, zer abentura ! Batzutan hotzegi, bestetan beroegi. Noiztenka uhain handiak badira, eta nere gainean ziliportatzen da. Artetan berriz, ura irensten dut... Ez da errex nork bere burua urera botatzea... baina zoin goxo den ondotik !

Flipluf ikuskizunak norbera ustekabean harritzera gonbidatzen du, bere kuriositateari irekiz, beldurrak gairitzera eta arriskua dastatzera. Metamorfosia baten istorioa da, beldarra pinpirin bilakatzen delarik bezala, zorabiorik gabe hegaldatzen ikasten diguna.

Oholtza gainean, bi artistek dantzatzen eta kantatzen dute. Ikusmoldeak aldatzen, eta eguneroko objektu eta soinu tresnak desbideratzen jostatzen dira. Putzuetan salto egitea ez dute dudatzen klaketak egiteko (putzuketak). Urazala, danbor baten azala bezalakoa bilakatzen da, erritmoa iratzartzen da, burbuilak airatzen dira, eta ez dakigu gehiago ehan hegaldaka ala igerikan ari giren.

Kobre koloreko oskola barnean nor agertuko ote da ? Txontxongilo iletsua mehatsu edo kontsolio ote da ? Begi onezko eskuek itxoiten duten baloina, beldurrez hustuko ote da ?

Ikuskizunaren irakurketa maila desberdinen parean, ikuslea identifikatzen ahalko da.



© Anaïs Darguy



© Matiu Bordato

MEDIAZIO KULTURALA



Ikuskizunaren inguruan mediazio kulturala egiteko posibilitatea dago, hartzaindegi edo ama-eskoletan :

- Arte plastiko, musika edota dantza sensibilizazioa, euskaraz edo frantsesez, ikuskizunaren gaien inguruan (beldurra, arriskua, eraldaketa, ura, ...)

Ez dudatu gurekin harremanetan sartzea. Deitura-helbideak azken orrialdean.



Alabena, Arantxa Lannes artista-koregrafoak, 2021eko ekainean, Uztaritzen sortutako dantza eta diziiplina anizdun konpainia da.

Duela kasik hamar urte Arantxa Lannes-ek Euskal lurraldean lan egiten duela dantzari gisa, baina baita ere dantza garaikideko diploma eskuraturik, dantza erakasle gisa eta eskoletan sensibilizazio lanak eramanez. Ospe nazionaleko konpainia desberdinetan ibili da, eta bereziki Elirale konpainiarekin bederlatzi urtez, interprete koregrafiko bezala eta eskoletan ibiliz.

2020an, Arantxa Lannes-ek bere proiektu artistiko propioak garatu nahi izan ditu.

Ondorioz, Alabena dantza eta diziiplina anizdun konpainia sortu du, nun bere ibilbide artistikoan esploratu dituen hiru arloak bateratu nahi dituen : dantza, arte plastikoak eta kantua.

Konpainia, sorkuntza artistikoan engainatzen da, mugimendua gai nagusitzat hartuz, ikusmolde sensible eta poetiko batekin. Identitatea, biziduna, denbora eta espazioarekiko harremana bezalako gaiak aipatzen eta galdezkatzen ditu. Gai horiek egunerokotasunaren obserbaketa eta esperientziak aipatzen dira, eta desmarxa artistikoa, Arantxa Lannes-en ibilbide pertsonal eta artistikoaren marka bezala, erreferentzia desberdinetan oinarritzen da. : dantza garaikidea, artearen historia, zientzia-fikzioa, zinema, musika, komikia, euskal kultura eta herri kultura... Liseritutako eta modelizatutako hainbeste materia, hainbat konposaketa artistiko eta hibridoak gorpuzteko.

Alabena-k, lotura soziala sortu nahi du eta hurbileko aktoreekin aktiboki lan egitea ere du helburu (eskola/ikastolak, zahar-etxeak, kultura elkarteak...), engainatutako lurraldeetan eta tokiko kolektibitateekin (herri, herrialde...), mediazio kulturala proposatuz, euskaraz edota frantsesez. Horrek forma desberdinak hartzen ahal ditu : oholtza-bazter bat, errepika publiko bat, lanbide artistikoei buruzko trukaketa bat, proiektu parte hartzaile bat, konpainiaren pieza baten inguruko sensibilizazio lan bat, edo artista, obra bati buruzko lan tematiko bat, etabar.

Arantxa Lannes



Hurtzarotik euskal dantzan, gimnasian eta arte plastikoetan (Bordeaux III, BAB-ko arte eskola) ikasi ondotik, Arantxa Lannes-ek dantza garaikidearekin (CCJC Toulouse) segitzen du bere ibilbidea. Ondotik, Ambra Senatore, Rosalind Crisp, Roberto Olivan edo Shlomi Tuizer koregrafoen ikastaroak segitzen ditu besteak beste.

2012an **Elirale konpainia** integratzen du eta publiko gazte eta helduarentzat, pieza koregrafikoetan errola desberdinak interpretatzen ditu (*Lodikroko, Ninika, H, Xihiko, Artha,...*). Urte berean, ahotsa lantzen du Baionako kontserbatorioan eta **La Dame de Pique** konpainian sartzen da profesionalki kantuan aritzeko (*La Barbe Bleue* 2015).

2017an **Bi'Arte** konpainiaren *Zubilanak* ikusgarrian, dantza sortzen eta interpretatzen du. 2018an **Doktor Mephisto** blues-soul taldea integratzen du kantari-korista eta dantzari bezala. 2019an **Eflirkoa** kolektiboarekin lanean hasten da.

2019ko apirilaren Dantza erakasle diploma lortzen du eta **Iparralai** eskolan erakasten du hiru urtez.

2021-ean, **Azarnak** diskaren liburuxka ilustratzen du eta performantzia bat emaiten taula gainean.

2021ean **Cactus Jelly** country-rock taldean ari da kantari bezala.

Bestalde, pieza koregrafikoak sortu ditu hainbat dantza talde amaturerentzat (2012 *Buruz Behera* Izartxo, 2013 *Eateren aztarna* Arrola, 2015 *Ixtan-T* Garaztarrak, 2018 *Uztaritzeko Kabalkada* Errobiko kaskarotak).

2021ean **Alabena** konpainia sortzen du (*Izakiak* 2022, *Flipluf* 2023).

Esperientzia horietaz aberasturik, Arantxa gorputzaren gaiari interesatzen da, beste arlo eta arteekin zubia eginez.

Maider Martineau



Maider Martineau euskal musikari multi-soinu-tresna jolea da, kantaria eta konpositorea.

Bere baitan dituen egokitzeko gaitasuna eta aberastasuna, bere proiektu musikaletan ikusgarriak dira, nun musika tradizionalen kultura eta musika garaikidearentzat duen interesa elkartzen diren.

Maider-ek musika instituzio desberdinetan ikasi du (Kontserbatorioa/Baiona, Toulouse eta Québec unibertsitatea) baina baita baserrialdean eta bere komunitatean ere.

Gaur egun, bikote moduan ibiltzen da, besteak beste, **Adar**, Arnaud Bibonne-ekin, etnomusikologia eta sorkuntza landuz, edo **Otxo**, Lolita Delmonteil-Ayral-ekin poesia eta pailazo joko bat garatuz. Bere soinu tresna kuttunak, esku soinuak (trikititxa, "diato", kromatiko, melodeon), esku perkusioak, panderoa, alboka eta ahantzi gabe, ahotsa ditu.

Bere ikerketetan, dantza sekular ez da urrun. Gaztaroon euskal dantza ikasirik, folk dantzaldietan produzitzen da, frantses, italiar, kanadiar, estatubatuar, euskal, eta espainol lurraldetan, eta dantza tradizional tailerrak eramaiten ditu festibaletan. Bere konposaketan, maiz soinuak keinuak bezala ikusten ditu, **Bertrand Dubedout**-rekin ikasitako konposaketa elektroakustiko ibilbideak intuizioa zorrotzurik.

Artista gisa, Maider hainbat proiektu eta kolaborazio desberdinetan ibili da : **Bostgehio**, **Sasi Ardiak**, **Ptäh**, **Albøsax**, **Manez** eta **Kobreak**, **Gerezien denbora**, **Banatu Bartók**, **Unitarian Church of Montreal**, **Logunarte**, **Bilaka**...

Bestalde, Maider koru zuzendaria da eta erakasle gisa, musika eskola (**Iparralai**), kontserbatorio (**Baiona**) edo ikastaroak emaiten ibiltzen da, adin guzietako publikoentzat. Mediazio kultura gustuko du, haur ttipiekin bereziki. Bi urtez musika iratzartze animatu izan du **Petits Ménestrels** hartzaindegian eta **Munduko musikarien zentroan (Montréal)**.



Harremana

Arantxa LANNES : 06 87 34 84 52

mail : alabena.elkartea@gmail.com

